BESTELAKO XEDAPENAK

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

5473

28/2011 DEKRETUA, urriaren 26koa, lehendakariarena, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko kide bat aldatzeko dena.

Ekainaren 27ko 9/1997 Legeak Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea arautu zuen. Lege horren 5. artikuluaren arabera, batzordeko kideak izendatzea lehendakariaren eskumena da, enpresarien erakundeek beren ordezkariak aukeratu ondoren. Bestalde, lege horren 7. artikuluaren arabera, batzordeko kideen agintaldia lau urterako izango da; baina, hala ere, berriro ere aukeratu ahal izango dira.

Dena dela, batzordean ordezkari diren erakunde, korporazio edo entitateek titular edo ordezko izendatu dituzten pertsonak aldatzeko aukera dute; eta izendatu berria kargu horretan arituko da ordezkatutako pertsonak Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean bete beharreko lau urteko epea igaro arte.

Lehendakariaren abenduaren 29ko 26/2009 Dekretuaren bitartez Batzordeko kideak izendatu ziren; eta apirilaren 26ko 7/2010 Dekretuaren bidez, bere lehendakaria. Aipatutako legearen 5. artikuluan 7.az ezarritakoa betetzeko, Euskal Enpresarien Konfederakuntza-Confebask-ek izendapen bat aldatu du.

Horren ondorioz, honako hau

XEDATU DUT:

1. artikulua.– Gonzalo Salcedo Bilbao jauna Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko kide izendatzea, Euskal Enpresarien Konfederakuntza-Confebask-ek aukeratu ondoren, Francisco Javier Azpiazu Lasuen jaunaren ordez.

2. artikulua.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean bertan izango ditu ondorioak dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko urriaren 26an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.